# ikus puntua

**Bizkaiko ekonomia**
**La economía de Bizkaia**
**#11 abendua/diciembre 2006**

Hau txosten ekonomiko zabalago baten laburpena baino ez da, web honetan eskura daitekeena:/
Versión reducida de un informe económico más amplio disponible en:
**www.berrikuntza.bizkaia.net**
**www.camarabilbao.com**

11

Papel reciclado - Paper birziklatua

| Behatokia | | Observatorio |
|---|---|---|
| Produkzio eta enplegu hazkundeek adierazten digute Bizkaiko enpresa-ehunak oso jarduera dinamikoa izan duela. | + | El tejido empresarial de Bizkaia se muestra muy dinámico, como así lo evidencian los crecimientos en la producción y el empleo. |
| Bizkaiko industriaren susperraldia sendotu egin da, eta, zalantzarik gabe, esportazioen bilakaera onak zerikusi handia izan du horretan. | + | Se consolida la recuperación de la industria de Bizkaia, ésta se ve beneficiada, sin duda, por la buena marcha de las exportaciones. |
| Enpresen %83k dio eskabide-zorroak hazi egin direla edo bere horretan dirautela. | + | La cartera de pedidos aumenta o se mantiene para el 83% de las empresas. |
| Produkzio gaitasunaren erabilera %88koa izan da, aurreko urtean baino ehuneko zazpi puntu handiagoa alegia. | + | La utilización de la capacidad productiva se sitúa en el 88%, siete puntos porcentuales por encima de un año antes. |
| Zerbitzuen sektorean, egonkortasuna da nagusi, hala ere, joera desberdinak antzeman daitezke sektore batzuetan eta besteetan. | = | En el sector de servicios, la tónica general es de cierta estabilidad, si bien, con comportamientos muy dispares en los distintos sectores. |
| Itsas garraioa hazi egin da, aireko garraioak egonkor dirauen bitartean. | + | El transporte marítimo continúa al alza mientras que el aéreo se mantiene estable. |
| Bizkaiko esportazioen balantzea aurreko urtekoa baino askoz positiboagoa da. | + | El balance de las exportaciones de Bizkaia es significativamente más positivo que el del año precedente. |
| 2006ko urtarril-irailean 2.381 enpresa berri sortu dira Bizkaian, hau da, aurreko urteko urtarril-irailean baino 220 gehiago. | + | En el período enero-septiembre de 2006 se crearon en Bizkaia un total de 2.381 nuevas empresas, cifra que supone un aumento de 220 sociedades con relación al mismo período del año anterior. |
| Lan merkatuak azken hilabeteetan izan duen bilakaera positiboari esker, Bizkaiko langabezi tasa ehuneko 2,2 puntu jaitsi da aurreko urtearen aldean, eta hartara, %4,4an kokatu da. | + | El buen tono del mercado de trabajo en los últimos meses ha permitido que la tasa de paro de Bizkaia descienda 2,2 puntos porcentuales respecto a un año antes, quedando situada en un 4,4% . |
| 2007an barne eskaria orekatuagoa izango dela aurreikusi da. Esportazioak hazi egingo dira munduko ekonomiaren hazkunde handiagatik eta EBko estatu batzuetako enpresen lehia handiagoagatik. Bizkaiko BPGdren hazkundea %4 ingurukoa izango da urtearen amaieran, eta hala Espainiako nola Europako ekonomiak gaindituko ditu. | = | De cara a 2007 se prevé un comportamiento más equilibrado de la demanda interna. Las exportaciones se seguirán beneficiando de la fuerte expansión de la economía mundial y del aumento de la competitividad de las empresas de la UE en algunos Estados miembro. El incremento del PIB de Bizkaia se situará al finalizar el año por encima del 4%, superando tanto a la economía española como a la europea. |


BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila
Departamento de Innovación y Promoción Económica

BILBOKO MERKATARITZA GANBERA
CÁMARA DE COMERCIO DE BILBAO

## Industria

Urtearen hiru laurdenak igaro diren honetan, badirudi industriaren susperraldia sendotu egin dela, halaxe erakusten digu behintzat Industriaren Konfiantza Adierazlearen goranzko joerak.

2006ko uztail-abuztuko datuen arabera 25 puntuko hobekuntza lortu da aurreko urteko uztail-abuztuaren aldean. Batez besteko balioek ere joerak hoberantz egin duela adierazten digute, eta 2001etik lortu ez diren bezalako kopuruak erdietsi dira.

## Industria

Cuando ya han transcurrido las tres cuartas partes del año parece consolidarse la recuperación de la industria, tal como lo evidencia la tendencia creciente de su Indicador de Confianza.

De este modo, los datos correspondientes al bimestre julio-agosto de 2006, muestran una mejoría en 25 puntos respecto al mismo bimestre del año anterior. Los valores medios presentan también una clara tendencia de recuperación, alcanzando cifras que no se obtenían desde el año 2001.




**Bizkaiko Industriaren Konfiantza Adierazlea**
Oharra: Industriaren Konfiantza Adierazlea Bilboko Merkataritza Ganberaren Industri Abagunearen Inkestatik lortzen da eta enpresen uneko egoera eta negozio igurikapenak aztertzen ditu.
Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera.

**Indicador de Confianza de la Industria de Bizkaia**
Nota: el Indicador de Confianza de la Industria se realiza a partir de la Encuesta de Coyuntura Industrial que elabora la Cámara de Comercio de Bilbao y mide la situación actual y las expectativas de negocio de las empresas. Fuente: Cámara de Comercio de Bilbao.

Eskabide-zorroak aurreko urtean baino bilakaera positiboagoa izan du, enpresen %17k eskabide-zorro handiak izan dituztela adierazi baitute (aurreko urtean baino sei puntu gehiago), baina, egia esan, honexetan datza gakoa: beste %17k baino ez dute aitortu jaitsi egin direnik, 2005ean %40 zirenean iritzi horretakoak. Susperraldi hau nabarmenagoa da barne merkatuan.

Produkzioa ere hobetu egin da. Inkestatutako enpresen %27k (%21ek 2005eko uztail-abuztuan) hobetu egin dela diote, eta %32k hurrengo hilabeteetan ere hobetzen jarraituko duela espero dute.

Produkzio gaitasunaren erabilera zazpi puntu hobetu da eta %88an kokatu da.

2006ko azken hilabeteetarako aurreikuspenak baikorrak dira, horrela beraz, enpresen %30ek uste dute salmenta gehiago egingo dituztela eta %24k eskabide-zorro hobea izango dutela. Enpleguari dagokionez, aitzitik, %10ek baino ez dute uste kontratu berriak egingo dituztenik.

La cartera de pedidos total, muestra una evolución más positiva que el año anterior al presentar un valor elevado para el 17% de las empresas, seis puntos más que un año antes, aunque la diferencia principal radica en que únicamente desciende para otro 17% cuando en 2005 lo hacía para un 40%. La recuperación es más palpable en el mercado interior.

La producción también mejora. Aumenta para el 27% de las empresas encuestadas (21% en julio-agosto de 2005), esperando un 32% que continúe haciéndolo en los próximos meses.

El grado de utilización de la capacidad productiva mejora en siete puntos, situándose en un 88%.

Las expectativas para los últimos meses de 2006 son optimistas y, así, se esperan crecimientos de las ventas en el 30% de las empresas y de la cartera de pedidos en el 24% de las mismas. Por el contrario, en el empleo únicamente un 10% prevé nuevas contrataciones.

## Eraikuntza

Eraikuntzari buruzko abagune adierazle gutxi baditugu ere, sektoreko jarduera mailak handia izaten jarraitzen duela esan dezakegu. Lizitazio ofizialari buruzko datuek adierazten digute 2005eko lehen bederatzi hilabeteetan baino kopuru txikiagoak erdietsi direla, eraikuntza -%22 jaitsi delako eta obra zibila, berriz, -%41,8. Bestalde, urtearen lehen sei hilabeteetan babes ofizialeko 386 etxebizitza gehiago hasi dira eraikitzen. Nolanahi ere, argi dago sektorearen alderdirik sendoena etxebizitza libreen eraikuntza dela. Une honetan ez dugu etxebizitza libreei buruzko daturik.

Lehen lau hilabeteetan zementu kontsumoa %1,9 hazi da.

## Construcción

El sector de la construcción, siempre escaso en indicadores coyunturales, mantiene un elevado nivel de actividad. No obstante, las cifras de licitación oficial presentan valores más reducidos que los de los nueve primeros meses de 2005, con caídas del –22% para la edificación y del –41,8% para la obra civil. Por otra parte, en el primer semestre del año se han iniciado 386 viviendas más de protección oficial. En todo caso, resulta evidente que la fortaleza del sector se centra en la construcción de viviendas libres, de las que en este momento no se disponen cifras.

El consumo de cemento en los cuatro primeros meses del año se incrementó en un 1,9%.

## Zerbitzuak

Zerbitzuetan egonkortasuna da nagusi, baina joera desberdinak antzeman daitezke sektore batzuetan eta besteetan. Oro har turismoak eta garraioak goranzko joera dutela eta merkataritzak eta enpresentzako zerbitzuek egonkor dirautela esan dezakegu.

Bizkaiko txikizkako merkataritzak ez du salmenta gehiagorik izan udako hilabeteetan, hala ere, stock-ak nabarmen hobetu eta ohiko mailaraino hurbildu dira; horri esker Merkataritzako Adierazlearen balioak zuzendu egin dira, aurreko urteko mailara iritsi ez diren arren. Egonkortasuna da nagusi, baina halako beheranzko joera bat antzeman daiteke.

## Servicios

La tónica general es de cierta estabilidad, aunque con comportamientos muy dispares en los distintos sectores. En general, se observa una tendencia de crecimiento ascendente en el turismo y los transportes y estable en el comercio y los servicios a empresas.

A pesar de que el comercio minorista de Bizkaia no ha mejorado sus ventas en los meses de verano, la importante mejoría de los stocks, acercándose al nivel considerado como adecuado, ha permitido corregir los valores de su Indicador de Confianza, aunque sin llegar a los niveles de un año antes, se mantiene una cierta estabilidad aunque en una línea de ligero descenso.




**Bizkaiko Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea**
Oharra: Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea Bilboko Merkataritza Ganberaren Merkataritza Abagunearen Inkestatik lortzen da eta enpresen uneko egoera eta negozio igurikapenak aztertzen ditu.
Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera.

**Indicador de Confianza del Comercio de Bizkaia**
Nota: el Indicador de Confianza del Comercio se realiza a partir de la Encuesta de Coyuntura Comercial que elabora la Cámara de Comercio de Bilbao y mide la situación actual y las expectativas de negocio de las empresas. Fuente: Cámara de Comercio de Bilbao.

Bizkaiko hotel-establezimenduetan 706.533 bidaiari erregistratu dira 2006ko urtarril-irailean eta, beraz, aurreko urteko aldi berean baino 89.888 bisitari gehiago izan ditugu. Urtearen lehen bederatzi hilabete hauetan 1.323.228 gau-igarotze erregistratu dira, hots, aurreko urtean baino %16,2 gehiago. Batez beste emandako egun kopurua 1,82 egun zen 2005eko irailean eta 1,83 egun izatera igaro da aurtengo irailean; okupazio maila, aldiz, %52,85etik %48,46ra jaitsi da.

En los establecimientos hoteleros de Bizkaia se han registrado 706.533 entradas de viajeros en enero-septiembre de 2006, superando en 89.888 visitantes la cifra del mismo período del año anterior. Las pernoctaciones registradas en esos nueve meses del año ascendieron a 1.323.228, lo que representa un aumento del 16,2%. La estancia media ha pasado de 1,82 días en septiembre de 2005 a 1,83 días en el mismo período del presente año, mientras que el grado de ocupación se ha visto reducido del 52,85% al 48,46%.




**Bidaiarien eta hotel-establezimenduetan igaritako gauen eboluzioa**

Bidaiariak
Gau Igarotzeak

* urtarrila-iraila
Iturria: Eustat.

**Evolución de viajeros y pernoctaciones en establecimientos hoteleros**

Viajeros
Pernoctaciones

* enero-septiembre
Fuente: Eustat.

## Azpiegiturak

2006ko lehen bederatzi hilabeteetan 27,3 milioi tonako trafikoa erregistratu da Bilboko Portuan, hau da, 2005eko lehen bederatzi hilabeteetan baino %12,7 gehiago. Deskargatutako merkatugaiak (20,3 milioi tona) %12,8 hazi dira eta kargatutakoak, berriz, %12,3. Hazkunde hau ontziratu gabeko likidoen eta solidoen bilakaera positiboagatik eman da, izan ere, lehenengoak %14,4 hazi dira (16,6 milioi tona) eta bigarrenak %16,4 (3,5 milioi tona). Ohiko merkatugaiek (7,2 milioi tona) hazkunde neurritsuagoa izan dute (%7,3). Bidaiari kopurua, bestalde, %8,6 hazi da.

## Infraestructuras

Un total de 27,3 millones de toneladas de mercancías se movieron en el Puerto de Bilbao durante los nueve primeros meses de 2006. Esta cifra supone un incremento del 12,7% sobre la del mismo período de 2005. Las mercancías descargadas (20,3 millones de tn.) se incrementaron en un 12,8%, mientras que las cargadas lo hicieron en un 12,3%. Este crecimiento se ha originado tanto por la positiva evolución de los graneles líquidos (16,6 millones de tn.) que aumentaron en un 14,4%, como por los sólidos (3,5 millones) que aumentaron en un 16,4%. La mercancía general (7,2 millones de tn.) presentó un aumento más moderado (7,3%). El número de pasajeros, por su parte, aumentó en un 8,6%.




**Merkatugaien trafikoaren eboluzioa bilboko portuan (Milaka tona)**

Kargatutakoak
Deskargatutakoak

*urtarrila-iraila
Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.

**Evolución del tráfico de mercancías en el Puerto de Bilbao (Miles de Tm.)**

Cargadas
Descargadas

*enero-septiembre
Fuente: Autoridad Portuaria de Bilbao.

2006ko lehen bederatzi hilabeteetan Bilbo-Loiuko Aireportuko bidaiari kopuruan halako geldialdi bat nabaritu da eta %0,5eko hazkundea besterik ez du izan (2.951.041 bidaiari alegia). Beste horrenbeste esan dezakegu hegaldi nazionalez (%0,3ko hazkundea) eta nazioarteko hegaldiez (%0,5). Hegaldi erregularretako erabiltzaile kopurua %1,5 hazi da eta charterretako erabiltzaileena, aldiz, -%16,4 jaitsi da.

En los nueve primeros meses de 2006 el tráfico de pasajeros en el Aeropuerto de Bilbao-Loiu ha experimentado un estancamiento, presentando un crecimiento del 0,5%, y alcanzando los 2.951.041. Esta situación se repite de un modo muy similar tanto para los vuelos nacionales (incremento del 0,3%) como para los internacionales (0,5%), mientras que los usuarios de vuelos regulares aumentan en un 1,5%, disminuyendo en un –16,4% los de los vuelos charter.




**Bidaiari trafikoaren eboluzioa Bilbo-Loiuko aireportuan**

*urtarrila-iraila
Iturria: Aena. Bilboko aireportua.

**Evolución del tráfico de pasajeros en el aeropuerto de Bilbao-Loiu**

*enero-septiembre
Fuente: Aena. Aeropuerto de Bilbao.

## Kanpo merkataritza

2006ko urtarril-uztailean Bizkaiko esportazioen balantzea aurreko urtean baino askoz positiboagoa izan da. Nolanahi ere, merkataritza defizita areagotu egin da, inportazioak esportazioen beste hazi direlako.

Horrela beraz, urtearen lehen zazpi hilabeteetan metatutako desoreka 2.358 milioi euroraino iritsi da, hots, 2005eko aldi berean baino %25,5 gehiago. Nolanahi ere, desoreka handi honen arrazoia balantza energetikoan datza, izan ere, balantza energetikoaren saldo negatiboa %39,2 hazi da, produktu ez energetikoen balantzak balore positiboak erdietsi dituen bitartean: 14 milioi eurotik 277 milioi eurora igaro da.

2006an gora egin dute kanpo salmentek eta 3.849 milioi eurora iritsi dira, horrek esan nahi du %24,3ko hazkundea izan dutela eta alde handia dagoela iazko aldi berean erregistratu zen jaitsierarekin (-%4,4). Inportazioek ere gora egin dute (%24,7) eta hazkunde erritmo hau 2005ekoaren (%24,4) oso antzekoa izan da.

## Comercio Exterior

El Balance exportador de Bizkaia del período enero-julio de 2006 es significativamente más positivo que el del año precedente. No obstante, el déficit comercial continuó avanzando, al crecer las importaciones a una tasa similar a las exportaciones.

De este modo, el desequilibrio acumulado en los siete primeros meses del año alcanzó los 2.358 millones de euros, un 25,5% más que en el mismo período de 2005. Sin embargo, el incremento del desequilibrio está originado por la balanza energética cuyo saldo negativo creció un 39,2%, mientras que la balanza de los productos no energéticos incrementó su valor positivo pasando de 14 millones de euros a 277 millones.

El aumento de las ventas exteriores en 2006 alcanzó los 3.849 millones de euros, lo que supone un crecimiento del 24,3%, y contrasta con el retroceso que se registró en el mismo período del año anterior (-4,4%). Las importaciones continuaron creciendo con fuerza (24,7%) y a un ritmo muy similar al de 2005 (24,4%).




**Bizkaiko kanpo merkataritzaren eboluzioa (milaka euro)**

Inportazioak
Esportazioak

*urtarrila-uztaila
Iturria: Merkataritza Ganberak.

**Evolución del comercio exterior de Bizkaia (mill. euros)**

Importación
Exportación

*enero-julio
Fuente: Cámaras de Comercio.

## Enpresa dinamismoa

2006ko lehen bederatzi hilabeteetan 2.381 sozietate berri sortu dira Bizkaian. Jarritako kapitala 208,7 milioi eurokoa izan da, beraz, enpresa bakoitzeko batez besteko kapitala 87.668 eurora iritsi da. Horrek esan nahi du 2005eko lehen bederatzi hilabeteetan baino 220 sozietate gehiago dagoela eta harpidetutako kapitala 39.155 euro gutxiagokoa izan dela batez beste.

## Dinamismo empresarial

Durante los nueve primeros meses de 2006 se crearon en Bizkaia un total de 2.381 nuevas sociedades con un capital aportado que ascendía a 208,7 millones de euros, lo que supone un capital medio de 87.668 euros por empresa. Estas cifras representan un aumento de 220 sociedades con relación al mismo período de 2005 y de 39.155 euros menos en el capital medio suscrito.




**Enpresa sorreraren eboluzioa**

*urtarrila-iraila
Iturria:
Merkataritza Erregistroko Buletina.

**Evolución de la creación de empresas**

*enero-septiembre
Fuente:
Boletín del Registro Mercantil.

Sortu berri diren enpresa gehienak zerbitzuen sektorekoak dira, %63 alegia, baina 83 sozietate gutxiago dago. Eraikuntzaren sektorean 433 enpresa sortu dira, hau da, lehen bederatzi hilabeteetan sortutako konpainia guztien %18 dira eta 31 konpainia gehiago dago. 2006ko urtarril-irailean sortutako sozietateen %17 industriaren sektorekoak dira, eta, beraz, 2005eko aldi berean baino 269 industria gehiago dago, nabarmen hazi direlarik energia fotovoltaikoa ekoizten dutenak.

El mayor número de empresas creadas corresponde al sector de servicios, con un 63% del total, si bien con una disminución en 83 sociedades. En el sector de la construcción se han constituido 433 empresas, suponiendo un 18% de las empresas creadas en los nueve primeros meses del año y presentando un incremento en 31 compañías. Un 17% del conjunto de sociedades creadas en enero-septiembre de 2006 corresponde al sector industrial, habiéndose constituido 269 más que en el mismo período de 2005, siendo especialmente significativo el gran crecimiento de las dedicadas a la producción de energía fotovoltaica.

## Lan merkatua

Lan merkatuak indartsu jarraitzen du. Eustat-en Jardueraren Araberako Biztanleria Inkestako datuek diotenez, 2006ko hirugarren hiruhilekoan 496.600 landun erregistratu dira, hau da, 2005eko aldi berean baino 9.900 gehiago. Datu hauek argi erakusten digute langabetuen kopuruak bilakaera positiboa izan duela, 22.800 izatetik 11.600 izatera igaro baitira.

Langabezi tasak hobera egin du eta kopuru oso baxuak erdietsi dira. 2006ko hirugarren hiruhilekoaren amaieran %4,4koa izan da, hots, 2005eko hirugarren hiruhilekoan baino 2,2 puntu baxuagoa.

## Mercado de trabajo

El mercado de trabajo continúa dando muestras de solidez. Los datos de la Encuesta de Población en Relación con la Actividad elaborada por el Eustat muestran que en el tercer trimestre de 2006 el colectivo empleado se situó en una cifra de 496.600 personas, lo que supone un incremento en 9.900 con respecto al mismo período de 2005. Las cifras presentan también una evolución positiva con respecto al número de parados ya que, con un total de 22.800, su cifra se reduce en 11.600.

La tasa de paro continúa mostrando una línea de marcada mejoría, situándose en valores notablemente reducidos. A finales del tercer trimestre de 2006 el paro asciende al 4,4%, lo que supone 2,2 puntos por debajo del mismo trimestre de 2005.




**Langabezi tasaren eboluzioa (%-tan)**
Iturria: PRA. EUSTAT.

**Evolución de la tasa de paro (en %)**
Fuente: PRA. EUSTAT.

| BIZKAIKO EKONOMI ADIERAZLEAK | Iturria | Epea | 2005 | 2006 | % 06/05 |
|---|---|---|---|---|---|
| JARDUERA | | | | | |
| - Industriaren Konfiantza Adierazlea | CCB | Uztail-abuztua | -16 | 9 | -- |
| - Industri Produkzioaren Indizea (1) | EUSTAT | Iraila | 3,6 | 4,9 | -- |
| - Industriako Energia Elektrikoaren Kontsumoa (milaka MWh) | IBERDROLA | Urtarril-iraila | 5.949 | 6.241 | 4,9 |
| - Produkzio Gaitasunaren Erabilera (%) | CCB | Urtarril-abuztua | 81 | 88 | -- |
| - Eskabide-zorroa (2) | CCB | Urtarril-abuztua | -29 | 0 | -- |
| - Zementu Kontsumoa (milaka tona.) | OFICEMEN | Urtarril-apirila | 208 | 212 | 1,9 |
| - Lizitazio Ofiziala (milioi euro) | SEOPAN | Urtarril-iraila | 742.619 | 470.601 | -36,6 |
| - Hasitako etxebizitzak | VAS-GV | Urtarril-abendua* | 6.904 | 5.236 | -24,2 |
| - Bilboko Portuko merkatugaien Trafikoa (milaka tona.) | AUT. PORT. | Urtarril-iraila | 24.276 | 27.354 | 12,7 |
| - Loiuko Aireportuko bidaiarien Trafikoa (milaka pertsona) | AENA | Urtarril-iraila | 2.937 | 2.951 | 0,5 |
| - Gau Igarotzeak hoteletan (milaka pertsona) | EUSTAT | Urtarril-iraila | 1.142 | 1.326 | 16,2 |
| - Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea | CCB | Uztail-abuztua | 0 | -11 | -- |
| ESKABIDE ETA PREZIOAK | | | | | |
| - Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea | FCVN | III. hiruhilekoa | -4 | -5 | -- |
| - Ibilgailuen Matrikulazioa | DGT | Urtarril-ekaina | 22.897 | 21.932 | -4,2 |
| - Industri Ibilgailuen Matrikulazioa | DGT | Urtarril-ekaina | 5.497 | 5.247 | -4,5 |
| - Bizkaiko KPI | INE | Iraila | 114,6 | 117,8 | 2,8 |
| - Txikizkako Merkataritzaren salmenten Indizea (3) | EUSTAT | III. hiruhilekoa | 111,1 | 115,8 | 3,8 |
| LAN MERKATUA | | | | | |
| - Biztanle Okupatuak (milaka pertsona) | EUSTAT | III. hiruhilekoa | 486,7 | 496,6 | 2,0 |
| - Biztanle Langabetuak (milaka pertsona) | EUSTAT | III. hiruhilekoa | 34,4 | 22,8 | -33,7 |
| - Langabezi Tasa (%) | EUSTAT | III. hiruhilekoa | 6,6 | 4,4 | -- |
| - Erregistraturiko Langabezia (milaka pertsona) | INEM | Iraila | 46,7 | 43,1 | -7,9 |
| - Gizarte Segurantzako Afiliatuak (milaka pertsona) | MTAS | Iraila | 465,1 | 473,0 | 1,7 |
| KANPO SEKTOREA | | | | | |
| - Esportazioak (milaka euro) | ADUANAS | Urtarrila-uztaila | 3.097 | 3.849 | 24,3 |
| - Inportazioak (milaka euro) | ADUANAS | Urtarrila-uztaila | 4.976 | 6.207 | 24,7 |
| ENPRESA DINAMISMOA | | | | | |
| - Sozietateen sorrera | CCB | Urtarril-iraila | 2.161 | 2.381 | 10,2 |

(1) Aurreko urteko aldi berarekin konparatuz izandako gehikuntza
(2) Erantzunen saldo garbia
(3) Aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren gaineko gehikuntza
* 2004 eta 2005 urteak

| INDICADORES ECONÓMICOS DE BIZKAIA | Fuente | Período | 2005 | 2006 | % variac. |
|---|---|---|---|---|---|
| ACTIVIDAD | | | | | |
| - Indicador de Confianza de la Industria | CCB | Julio-agosto | -16 | 9 | -- |
| - Índice de Producción Industrial (1) | EUSTAT | Septiembre | 3,6 | 4,9 | -- |
| - Cons. de Energía Eléctrica en la Industria (miles MWh) | IBERDROLA | Enero-septiembre | 5.949 | 6.241 | 4,9 |
| - Utilización de la Capacidad Productiva (%) | CCB | Julio-agosto | 81 | 88 | -- |
| - Nivel de la cartera de pedidos (2) | CCB | Julio-agosto | -29 | 0 | -- |
| - Consumo de Cemento (miles Tm.) | OFICEMEN | Enero-abril | 208 | 212 | 1,9 |
| - Licitación Oficial (millones euros) | SEOPAN | Enero-septiembre | 742.619 | 470.601 | -36,6 |
| - Viviendas iniciadas | VAS-GV | Enero-dic.* | 6.904 | 5.236 | -24,2 |
| - Tráfico de mercancías Puerto de Bilbao (miles Tm.) | AUT. PORT. | Enero-septiembre | 24.276 | 27.354 | 12,7 |
| - Tráfico de pasajeros Aeropuerto Loiu (miles personas) | AENA | Enero-septiembre | 2.937 | 2.951 | 0,5 |
| - Pernoctaciones en hoteles (miles de personas) | EUSTAT | Enero-septiembre | 1.142 | 1.326 | 16,2 |
| - Indicador de confianza del Comercio | CCB | Julio-agosto | 0 | -11 | -- |
| DEMANDA Y PRECIOS | | | | | |
| - Índice de confianza del Consumidor | FCVN | III trimestre | -4 | -5 | -- |
| - Matriculación de Automóviles | DGT | Enero-junio | 22.897 | 21.932 | -4,2 |
| - Matriculación de Vehículos Industriales | DGT | Enero-junio | 5.497 | 5.247 | -4,5 |
| - IPC Bizkaia | INE | Septiembre | 114,6 | 117,8 | 2,8 |
| - Indice de Ventas del Comercio Minorista(3) | EUSTAT | III trimestre | 111,1 | 115,8 | 3,8 |
| MERCADO LABORAL | | | | | |
| - Población Ocupada (miles personas) | EUSTAT | III trimestre | 486,7 | 496,6 | 2,0 |
| - Población Parada (miles personas) | EUSTAT | III trimestre | 34,4 | 22,8 | -33,7 |
| - Tasa de Paro (%) | EUSTAT | III trimestre | 6,6 | 4,4 | -- |
| - Paro registrado (miles personas) | INEM | Septiembre | 46,7 | 43,1 | -7,9 |
| - Afiliados a la Seguridad Social (miles personas) | MTAS | Septiembre | 465,1 | 473,0 | 1,7 |
| SECTOR EXTERIOR | | | | | |
| - Exportaciones (millones de euros) | ADUANAS | Enero-julio | 3.097 | 3.849 | 24,3 |
| - Importaciones (millones de euros) | ADUANAS | Enero-julio | 4.976 | 6.207 | 24,7 |
| DINAMISMO EMPRESARIAL | | | | | |
| - Creación de sociedades | CCB | Enero-septiembre | 2.161 | 2.381 | 10,2 |

(1) incremento con relación al mismo período del año anterior. Datos corregidos a efecto de calendario
(2) saldo neto de respuestas
(3) incremento acumulado sobre el mismo período del año anterior
* años 2004 y 2005